

DFERIA 2010

Antzerkia eta dantzaren euskal hitzordua

Azkenean Donostiak izango du 2010eko Antzerkia eta Dantza Feria. Sektoreko ordezkari ezberdinekin eginiko bileren ondoren, **trantsizioko edizioa** egitea erabaki dugu, euskal produkzioari erabat eskainia (sektore honi laguntza emateko eta publikoari zein zaleei zor diogun errespetuagatik (X)) baita **hausnarketa prozesu bat abiatzea dFERIA 2011 izango dena finkatzeko**, jaialdi honen etapa berri baten lehen edizioa.

Nahiz eta bizi dugun unea larria izan, ez dugu hutsune bat probokatu nahi gero kalte –agian konpondu ezinezkoa- sortuz uneko zailtasunak ere pairatzen dituen sektoreari eta, gainera, Donostia Kulturaren (XX) edukien parte ezinbestekoa denari... Are gehiago, publiko donostiarra eta gipuzkoarra –Feria ezagutzen duena eta Feria oraindik ezagutzen ez duena- animatu nahi dugu hiru egun hauetan euskal Arte Eszenikoen eskaintza onenean murgiltzera eta gozatzera.

Horregatik, Donostiak edizio berezi bat izango du aurten, hiru eguneko zubi lanak beteko dituen jaialdia, bertako konpainiei erabat eskainitakoa eta orain hasten ari garen lan-lerro berriak oinarri hartuko dituen. **Ekainaren amaieran izango da eta, gehienez ere, 12 saio izango dira.**

Gauzak horrela, 2010a euskal hitzordua izango da bertako sektorearen beharrezko begira. Ez baitugu gure sektore hau laguntzarik gabe utzi nahi eta horregatik erakusle horik onena garatu nahi dugu beren lanak programatzaileei ezagutzera eman eta saltzeko.

dFERIA10: gakoak

- dFERIAren izena mantentzea, "Antzerkiaren eta Dantzaren euskal hitzordua" leloa gehituz.
- 2010ean erabat euskalduna izango den feria egitea.
- Ekainaren amaieran egitea.
- Gehienez ere 12 funtzio izango dira, hiru egunetan banatuak.
- Konpainiek katxetaren %50a kobratuko dute eta antzezlanaren egunean dieta erdia izango dute, hotela (beharrezkoa izango balitz) eta fitxa teknikoa.
- Programatzaileak: gehienez ere 100 programatzaile gonbidatuko ditugu. Bakoitzari, gehienez, hiru gaualdi ordainduko zaizkio.

- Hautatutako konpainia bakoitzari zerrenda bat emango zaio programatzaile guztiekin. Konpainiek zein programatzaile gonbidatu nahi dituzten proposatzeko aukera izango dute, SAREAko programatzaileak alde batera utzita. Irizpide hauek jarraituz, gehienez ere 60-70 programatzaile gonbidatuko dira.

Gainerakoak, aipatutako 100ak osatu arte, dFERIAk berak hautatuko ditu. Konpainiek emandako zerrenda osatuko da konpainientzako interesgarriak direnak kontutan hartuz (Red Española, Sarea, Cofae, zirkuitu eta sare ezberdinetako kideak, Iparraldeko programatzaileak, babesleak, prentsa espezializatua...). dFERIAk ez balu 100eko kopurua beteko, konpainiak emandako zerrendatik tiratuko genuke berau osatu arte.

- Konpainiei proposatu nahi diegu %10eko deskontua egitea ferian kontratatutako ikuskizunetan bertan egongo diren programatzaileei begira (baldintza berdinetan aplikatu daiteke euskal produkzio guztiari, hala nahi izanez gero). Horrela bada, behar den moduan emango dugu ezagutzera.

- Feriaren programaren bukaera aldera azken urteko euskal produkzio osoaren zerrenda sartzea, konpainiekin harremanetan jartzeko kontaktuekin.

- Goizetan, negozioak egiteko topagunea erraztea: konpainien eta programatzaileen arteko bilerak hitzartzea produktuak-eta saltzeko. Konpainiek kudeatuko dituzte hitzordu hauek.

- Feriaren amaieran, programatutako konpainiek eginiko salmenten kopurua emateko konpromisoa hartzea. Datu horiek ere eskatuko dira hiru eta sei hilabete ondoren. Feriara etorri nahi duten programatzaile ez gonbidatuei, logistika kontuetan aholkua emango zaie, baita ikuskizunak ikusteko gonbidapenak ere.

Programazioaren gakoak:

- Euskal programazioa
- Berria
- Antzerkia eta Dantzaren arteko oreka bilatuz.
- Aretoetan emateko modukoak.
- Prezio politika herrikoia ezarriko da, edozein poltsikok ordain dezakeena, kultur errentagarritasuna ekonomikoaren gaintik jarriz. (Adibidez: helduek, 5 eta 10 euro bitartekoa; gazteek, 3 euro).

Ebaluazioa: Feriaren amaieran, gogobetetze-inkesta bidaliko zaie bertaratutako konpainiei eta programatzaileei.

Inkesten emaitzak ezagutu ondoren, etorkizuneko feriareneko gakoak diseinatzeko sorturiko lan-batzordeak emaitzak aztertu eta hartu beharreko erabakiak hartuko ditu. Aipatu batzordean erakunde babesleak, konpainiak eta Donostia Kulturako ordezkariak daude.

Erraztasuna maila operatiboan eta zorroztasuna izango dira erakustaldiaren gakoak.

2010a, azkenik, [edizio estrategikoa](#) izango da datuak biltzeko orduan, bertan iritziak bilduko baitira, sektorearen emaitzak eta beharrak barne. Horiek guztiek osatuko dute lan eredu berria ezartzeko orduan beharrezkoa den [etengabeko azterketaren](#) oinarriak.

Eta helburu horrekin, elkarrekin arituko gara lanean sektoreko, Gipuzkoako Aldundiko, Eusko Jaurlaritzako eta Kutxako ordezkariekin batera. Erakunde hauei guztiei gure esker ona azaldu nahi diegu feriarene eta Gipuzkoako zein Euskadiko Arte Eszenikoen aldeko apustua mantentzeagatik. dFERIAk erakunde hauen babes ukaezina jaso du, baita Inaem, SGAE, Cofae... erakundeena ere.

(X) Urtebeteko hausnarketa estrategikoa maila honetako kultur topagune baten misioari buruzkoa, gaur eta hemen, inguruan nola integratu, helburuak, anbizioa eta beharrak. Premiazko ikusten dugu feria profesionala laguntzea, sektorearen, populazioaren eta ingurunearen joerak kontutan hartuz (beste feria eta jaialdiekin duen harremana, mugaz gaindiko papera, bertako sorkuntzari eman beharreko bultzada, teknologia berrien eragina, euskarari eman beharreko babesa, besteak beste).

(XX) Donostia Kulturak lau agertoki eszeniko kudeatzen ditu, baita proiektu eszeniko morderoa ere: masterclass, mugaz gaindiko proiektuak, Eskolatik Antzerkira programa, Donostia Antzerkia Saria, eta abar.

DFERIA 2010

Cita vasca de teatro y danza

Finalmente habrá Feria de Teatro y Danza en Donostia en 2010. Tras varias reuniones con representantes del sector, hemos acordado una **edición de transición**, exclusivamente dedicada a la producción vasca (al objeto tanto de apoyar a este sector como por respeto al público y aficionados (X)) y el **inicio de un proceso de reflexión del que derive dFERIA 2011**, la primera edición de una nueva etapa de este certamen.

Y es que pese a la seriedad del momento, no hemos querido provocar un vacío que supusiera un daño -tal vez irreparable- en un sector que también está viviendo las dificultades del momento y que, por supuesto, consideramos parte sustancial de los contenidos de Donostia Kultura (XX)... Más aún, queremos alentar al público donostiarra y guipuzcoano - al que ya conoce la Feria y al que no la ha descubierto todavía - a disfrutar de estos tres días de inmersión en lo último y lo mejor de las Artes Escénicas vascas.

Por ello Donostia - San Sebastián contará con una edición especial, un certamen puente de tan sólo tres días, que dedicaremos en exclusiva a las compañías locales y que sustentará algunas de las nuevas líneas de trabajo que estamos iniciando. Será **a finales de junio próximo y con un máximo de 12 funciones**.

Será así 2010 una cita vasca para atender básicamente a las necesidades del sector local al que no queremos dejar de apoyar, desarrollando para ello el mejor escaparte posible para la venta de sus obras ante programadores.

CLAVES DE dFERIA10

- Mantener el nombre de dFERIA, pero añadiendo este año la coletilla de "Cita vasca de teatro y danza".
- Realizar una feria exclusivamente vasca en el 2010.
- Realizar la muestra a finales de junio
- Hacer un máximo de 12 funciones en 3 días.
- Las compañías cobrarán el %50 del caché y dispondrán de media dieta el día de la actuación, hotel(sí fuera necesario) y ficha técnica.
- Programadores: se invitará a un máximo de 100 programadores a 3 noches de hotel en media pensión.

- Cada compañía seleccionada, facilitará una lista con todos los programadores en orden de preferencia a los cuales invitaría, exceptuando programadores de SAREA. Según estos criterios se invitará a un máximo de 60-70 programadores.

El resto hasta 100 los seleccionará dFERIA, completando el listado facilitado por las compañías, y pensando en el interés de las mismas (Red Española, Sarea, Cofae, Miembros de circuitos y redes, Algún programador de Iparralde, Patrocinadores, Prensa especializada...). Sí dFERIA no completase el número de 100, se completaría con los excedentes de la lista facilitada por las compañías.

- Proponer a las compañías un descuento de un %10 por la compra de sus espectáculos en el transcurso de la muestra, para los programadores asistentes (puede ser extensible a toda la producción vasca en las mismas condiciones). En caso afirmativo, se anunciará debidamente.

- Introducir al final del programa de la feria, un listado con toda la producción vasca del último año y los contactos de las compañías.

- Facilitar un punto de encuentro por la mañana para el negocio: reuniones concertadas entre compañías y programadores para explicar e intentar vender sus productos, las compañías gestionan las citas.

- Las compañías programadas se comprometen a facilitar el número de ventas realizadas una vez terminada la muestra, a los 3 meses y finalmente a los 6 meses. A los programadores no invitados y que quieran asistir a la muestra, se les orientará en la logística y se les facilitará invitaciones para los espectáculos.

Claves de la programación:

- Vasca
- Novedad
- Equilibrada entre el Teatro y la Danza
- Únicamente formatos de sala
- Implantar una política de precios popular y al alcance de cualquier bolsillo, favoreciendo la rentabilidad cultural frente a la económica. (Ej: Adultos entre 5 y 10 euros, jóvenes 3 euros).

Evaluación: Al finalizar la feria, se mandará una encuesta de satisfacción, tanto a las compañías como a los programadores asistentes.

Una vez conocidos los resultados de las encuestas, la comisión de trabajo creada para diseñar las claves de futuro de la feria, compuesta por instituciones patrocinadoras, compañías y Donostia Kultura, analizará los resultados y tomará decisiones de futuro.

La sencillez a nivel operativo y el rigor tienen que ser las claves de la muestra.

2010 será, por último, una **edición estratégica** a la hora de recabar datos -y vuelvo al punto de repensar la Feria con el que hemos iniciado- puesto que en ella se recogerán opiniones, resultados y necesidades del sector, que constituirán la base para una **evaluación continúa** que queremos incorporar a este nuevo modelo de trabajo.

En ello trabajaremos junto con una comisión formada por miembros del sector y junto con la Diputación de Gipuzkoa, Gobierno Vasco y Kutxa a quienes agradecemos sobremanera el que mantengan intacta su apuesta por esta feria y por el sector de las Artes Escénicas guipuzcoano y vasco. dFERIA ha recibido también de ellas - junto a Inaem, SGAE, Cofae - un apoyo incuestionable al proyecto.

(X) Un año de reflexión estratégica sobre la misión de un encuentro cultural de este tipo, hoy y aquí, su encuadre en el entorno, sus objetivos, la ambición y necesidades de una feria profesional que consideramos urgente apoyar y revitalizar según las nuevas tendencias del sector, de la población y del entorno (entronque con otras ferias y festivales, papel transfronterizo, impulso a la creación local, influencia de las nuevas tecnologías y apoyo al euskera, entre otros).

(XX) Donostia Kultura gestiona 4 espacios escénicos y un número importante de proyectos escénicos: masterclass, proyectos transfronterizos, eskolatik antzerkera, además premios al teatro en Euskera (Antzerki Saria), etc...